



Arartekoaren ebazpena, 2012ko maiatzaren 28koa. Horren bidez Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailari gomendatzen zaio eskolatzeko asmoz aldi baterako egonaldian dagoen adingabe atzerritar bati osasun arreta onar diezaioten.

Aurrekariak

1. Administrazio baldintzak bete ondoren, EAEko herri batean 2011/12 ikasturtean ikasketak egiteko asmoz adingabe atzerritar bat hartu zuen familia batek Osasun eta Kontsumo Sailari osasun arretaren estaldura eskatu zion.

Gobernuaren Ordezkariordeztzak adingabea eskolatzeko asmoz bideratutako aldi baterako lekualdaketaren aldeko txostena eman du. Aipatu familiak adingabe hori hartuko du Espainian dagoen bitartean.

2. Familiak aurretik parte hartu zuen Ukrainiako haurrak udan aldi baterako hartzeko programetan, *Chernobil Elkartearen* eta *Chernobileko Umeak hartzeko Elkartearen* bidez aurretik adingabe hori etxean hartu zuen udan.

Orain, eskolatzeko harrerarako, Osasun eta Kontsumo Sailak familiari esan dio adingabeak ez duela osasun estaldurarako eskubidea, udan edukiko zukeena bezalakoa, mahaigaineratutako egoera desberdina baita. Haren ustez, harrera pribatua da eta ikasketetarako; beraz, ez da antolatutako udako elkartasun kanpainen berdina. Bertan, halaxe jakinarazi zieten, osasun arreta Gizarte Segurantzako Idazkaritza Nagusiaren 1987ko irailaren 16ko ebazpenari jarraiki ematen da.

Kasu honetan, osasun administrazioak iritzi du hartutakoaren egonaldian - apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bitartez araututakoa- 38. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar dela. Horren arabera, ikasketak egiteko estatuan egon daitezzen eskatzen duten atzerritarrek, dagokien bisatua lortzeko, gaixotasunaren aseguru publikoa edo pribatua eduki beharko dute Espainian jardun ahal izateko baimenduta dagoen erakunde aseguratzaileraren batekin hitzartua.





Ondorioz, Osasun eta Kontsumo Sailak adingabea hartzen duenari jakinarazi dio adingabearen osasun estaldura haurra gonbidatzen duen familiaren kargura izango dela estatuan egongo den bitartean.

3. Aurrekari horiek aztertu ondoren, aipatu Osasun eta Kontsumo Sailari informazioa eskatu diogu 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoaren 12.3 artikuluan ezarritakoa kontuan nola hartu den jakiteko. Bertan hauxe dio: "Espainian dauden hemezortzi urte baino gutxiagoko adingabe atzerritarrek eskubidea dute osasun arreta eskuratzeko espainiarrek eskuratzen duten baldintza berdinetan".

Osasun eta Kontsumo Sailak emandako erantzunean esan zigun 2/2009 Lege Organikoa ezarri arren *adingabe atzerritarrek eskubidea dutela osasun arreta eskuratzeko espainiarrek eskuratzen duten baldintza berdinetan*, erreklamazioak hizpide duen kasuan, horrez gain, aintzat hartu zen 557/2011 Errege Dekretuak onartutako erregelamenduaren 38. artikuluan (lehen adierazitakoa) xedatutakoa.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, familia horren ekintzak, alegia, ikasketak egin ditzan adingabe bat hartzeak (Gobernuaren Ordezkariordeztaren nahitaezko baimena duenak) duen gizarte funtzioa eta aurretik udan eman zuen denboran aurrera eramandakoak izaera bera dauka. Udan emandako denbora hartan, adingabeak orain zalantzan jarritako osasun arreta jasotzeko duen eskubidea onar ziezaioten arazoak izan zituen.
2. Uste dugu gure iritzipean jarritako kontu hau -alegia, adingabe atzerritar honek osasun arretarako eskubidea duen edo ez zehaztean datza funtsean- 2/2009 Lege Organikoaren 12.3 artikuluan xedatutakoa (dagoeneko 3. aurrekarian aipatu duguna) kontuan hartuta ebatzi behar dela. Ildo horretan, iruditzen zaigu maila txikiagoko arauen harira egin daitekeen beste edozein interpretaziok kontuan hartu beharko duela adingabe atzerritarrek osasun arreta jasotzeko duten eskubidea.

Dena den, Osasun eta Kontsumo Sailak familiari emandako erantzunak Gizarte Segurantzako Idazkaritza Nagusiaren ebazpena mahaigaineratzea eragin du, 2. aurrekarian aipatutakoa, jakinarazteko udako egonaldi bat izan balitz, ebazpen



horretan xedatutako osasun arreta edukiko zukeela; hala, esan behar dugu ez dugula antzeman ebazpen horrek tratu desberdinek ematen dionik udako egonaldiari eta ikasketengatik orain planteatu zaigun egoerari.

Gizarte Segurantzako Idazkaritza Nagusiaren 1987ko irailaren 16ko ebazpenaren inguruan egin dugun aipamenaren ondotik pentsa daiteke osasun administrazioak haren eremuan osasun estalduraren eskaera hori kokatu izan balu, ez litzatekeela 557/2011 Errege Dekretua aplikatuko, kontuan hartuta, haren iritziz, adingabeak osasun estaldura propioa edukitzera behartzen duela.

Asmoa beste bat izan da. Horregatik, adierazi nahi dugu bakarrik, Gizarte Segurantzako ebazpen horren edukia aintzat hartuta, gure ustez ez dagoela justifikatuta harrera-familiari emandako erantzunak hizpide duen udako egonaldiaren eta ikasketei lotutako egonaldiaren arteko desberdintasuna.

Hala, ez dugu zalantzan jartzen harrera hori 557/2011 Errege Dekretuaren eremuan kokatu behar denik; bai, ordea, osasun administrazio horrek ateratako ondorioa, hau da, dekretu hori aplikatzearen ondorioz adingabeak osasun estaldura propioa eduki behar duela.

3. Gobernuaren Ordezkariordeztzak adingabea egon dadin aldeko txostena ematerakoan esan du, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren 188.3 artikulua arabera (Espainian bizi diren atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta euren gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren araudia, abenduaren 11ko 2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren), egonaldia ikasturte akademikoa amaitzen denean bukatuko dela. Une horretan, salbuespenetzko egoerek eragozten ez badute, adingabea haren herrialdera itzuliko da.

Arauzko esparru horretan kokatuta, Osasun eta Kontsumo Sailak uste du 557/2011 Errege Dekretuaren 38. artikulua aplikatu behar dela, ikasketei lotutako egonaldi kasuetarako bisatua lortzeko baldintza orokorrei buruzkoa. Hori abiapuntu izanik, kontuan hartuta aipatu artikulua xedatzen duela orokorrean aipatzen dituen ikasleek gaixotasunaren aseguru publikoa edo pribatua eduki beharko dutela Espainian jardun ahal izateko baimenduta dagoen erakunde aseguratzaileraren batekin hitzartua, ondorioztatu du adingabe horrek baldintza hori bete behar duela eta, horrenbestez, ez duela Osasun eta Kontsumo Sail horri eskatutako estaldurarako eskubidea.



4. Kasu hori ikuspegi honetatik aztertuta, alegia, ikasketak egin ditzan harreran hartutako adingabe atzerritar bati aseguru propioa izatea eskatu eta ondorioz estaldura publikoa emateko ezezkoa, egin behar dugun lehenengo galdera da nola koka daitekeen eskubidearen inguruan egindako araudiaren interpretazio murriztaile hori lege organikoaren 12.3 artikuluan. Gogora dezagun hauxe diola: *“Espainian dauden hemezortzi urtetik beherako adingabe atzerritarrek eskubidea dute osasun laguntza eskuratzeko espainiarrek eskuratzen duten baldintza berdinetan”.*

Osasun administrazioaren jarduera arazuko hierarkiaren printzipioari lotu ahal zaio, uste izanez gero aseguru propioa edukitzeko ikasle atzerritarren aldi baterako betebeharraren oinarriaren gainean adingabe atzerritar gisa espainiarrek eskuratzen duten baldintza berdinetan osasun arreta jasotzeko haren eskubidea indargabetu daitekeela.

Zehazki, 557/2011 Errege Dekretuko manua Osasun eta Kontsumo Sailaren ezezko erabakiak jasotzen duen moduan ulertzen bada, lege organikoaren 12.3 artikuluan xedatutakoa mugatzen da eta bertan honako hau ezartzen da: *“Espainian dauden hemezortzi urtetik beherako adingabe atzerritarrek eskubidea dute osasun laguntza eskuratzeko espainiarrek eskuratzen duten baldintza berdinetan.”*

Gauzak horrela, egokia litzateke gogoratzea Osasun Sistema Nazionalaren kohesioa eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen inguruan berriki egindako aldaketa. Izan ere, 3. ter artikuluan xedatzen da 18 urtetik beherako adingabe atzerritarrek osasun arreta espainiarrek jasotzen duten baldintza berdinetan jasoko dutela.

Aurreko arrazoiengatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendioa egiten da.

65/2012 GOMENDIOA, maiatzaren 28koa, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailari egina

Beharrezko izapideak bete aurretik, adingabe horri hemen emango duen denboran zehar osasun arreta jasotzeko eskubidea duela dioen egiaztagiria eman diezaioten.